



GALDERA ORROKORRAK

- Nola lor dezaket lehiaketari buruzko informazioa?
- Nola lor dezaket Intraneteko informazioa?
- Internetez nola sartu naiteke lehiaketa baten informazio espezifikora?
- Nortzuk aurkez daitezke lehiaketa hauetara?
- Nola eskuratu ditzaket lanpostuen monografiak?
- Nola arautzen dira lehiaketak?
- Erresulta-faserik badago?
- Lehiaketen deskribapena
- Behin-behinean atxikitakoak
- Dagokion titulazioa izanez gero, aurkez naiteke nire kidegokoak ez diren lanpostuetara?
- Nola egaztatzten dira betekizun espezifikoak?
- Nola baloratuko dira merezimendu orokorrak?
- Zer alegatu behar dut?
- Zer egiaztatu behar dut?
- Nola egiaztatu merezimendu berriak
- Zer esan nahi du lehiaketan atzera egiteak?
- Aurkez naiteke lehiaketa bat baino gehiagotan iragarritako lanpostuetara?
- Zer gertatzen da lehenengo banago bi deialdiri dagozkion bi lanpostu esleitzeko?



- [Nola lor dezaket lehiaketari buruzko informazioa?](#)

Helbide hauetan dago lehiaketari buruzko informazioa:

- o Internet: www.euskadi.net/concurso
- o Intranet: Jakina

- [Nola lor dezaket Intraneteko informazioa?](#)

Jakinatik; Nabarmenduak atalean egongo da lehiaketetarako sarbidea. Puntu horretan, langile guztiek honako hau kontsultatu dezakete:

- Oinarri orokorrak eta espezifikokoak
- Eskaintzen diren plazak
- Langileen erregistroa
- Aurreikusitako egutegia
- Lehiaketa bakoitzaren egoera
- Eskatu gabeko lanpostuen zerrenda
- Lehiaketan esleitu ez diren lanpostuen zerrenda

Halaber, Balorazio Batzordeak hartzen dituen erabaki guztiak ere kontsultatu ahal izango dituzte lehiaketan parte hartzen duten langileek. Hona hemen azpimarratzekoak direnak:

- onartuen eta baztertuen zerrenda,
- merezimenduak baloratzeko zerrenda,
- esleipenen zerrenda,
- batzordearen erabakiak.

Horretaz gainera, honako hauek egin ahal izango dira langilearen ataritik:

- Lehiaketetarako eskabideak egin
- Alegazioak aurkeztu Langileen Erregistroan aitortutako datuen aurka
- Erreklamazioak egin Balorazio Batzordeak hartutako erabakien aurka
- Eskabideak kontsultatu
- Monografiak kontsultatu
- Merezimenduen balorazioa eta esleipena kontsultatu

Azkenik, lehiaketan parte hartzen dutenek, eskabidean posta elektronikoa jarri badute, argitalpen berriei buruzko mezu elektronikoa jasoko dute, Balorazio Batzordeak erabaki bat hartzen duen bakoitzean.



- [Internetez nola sartu naiteke lehiaketa baten informazio espezifikora?](#)

Lehiaketaren aplikazio baten bidez sartzen da parte hartzen ari den lehiaketa espezifikoetan; aplikazioan sartzeko, beharrezkoa izango da PIN baten bidez identifikatzea.

PINa eskabidean jarritako posta elektronikora bidaltzen da, gehienez ere astebeteko epean, "Lehiaketara behin-behingo onartuak" txostena argitaratzen denetik hasita.

- [Nortzuk aurkez daitezke lehiaketa hauetara?](#)

A eta B titulazio-taldeetako karrerako funtzionario guztiak, baldin eta behin-behineko atxikipena badute edo lehiaketaz lortutako azken destinoan bi urte badaramatzate.

Funtzionario horiek nahi duten lehiaketa guztietara aurkez daitezke, baldin eta iragarritako lanpostuaren betekizunak (lanpostuen zerrendan ezarriak) betetzen badituzte.

- [Nola eskuratu ditzaket lanpostuen monografiak?](#)

Geutzen-etik lor daitezke lanpostu guztien monografiak.

Gainera, lehiaketaren aplikaziotik ere jo daiteke lehiaketako lanpostu hutsen monografietara, lanpostuen kontsultan.

- [Nola arautzen dira lehiaketak?](#)

Lehiaketa hauek espezifikoki arautzen dira honako hauen bidez:

- Oinarri orokorren bidez: lehiaketa espezifikoen deialdi guztientzako betekizunak ezartzen dira, hau da, parte hartzeko baldintzak eta prozedura (faseak, garapen-prozesua, merezimenduen balorazioa eta ebazpena).
- Oinarri espezifikoen bidez: Balorazio Batzordea izendatzen da, iragarritako dotazioak ezartzen dira, eta II. faseko proba motak zehazten dira.

- [Erresulta-faserik badago?](#)

Ez.

Lehiaketa honetan hutsik geratzen diren lanpostuak hurrengoan iragarriko dira, non eta, duten maila edo kokapenagatik, LEP baterako direla jotzen ez den.

- [Lehiaketen deskribapena](#)

A eta B taldeetako langileentzat, bi motatako lehiaketak iragarriko dira, lanpostuen ezaugarrien arabera:



- Lehiaketa espezifikoak: erantzukizun edo ezagupen bereziko lanpostuak eskainiko dira: I, II eta III-A berariazko osagarriak dituzten mailak.
- Lehiaketa orokorra: III-B mailakoa edo hortik beherako berariazko osagarria duten mailetakako lanpostuak eskainiko dira. Fase bakarra egongo da, merezimendu orokorrak baloratzeko.

Lehiaketa espezifikoak:

Lanpostu bakoitzaren monografiatan dauden jakintza-arloka egingo da lanpostuetarako deia. Bi txandatan iragarriko dira:

1. TXANDA

- KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA ETA KANPO HARREMANAK
- PRODUKZIO-SEKTOREAK ETA LEHIAREN DEFENTSA
- EKONOMIA ETA OGASUNA
- OSASUNA
- BABES ZIBILA, TRAFIKOA ETA GARRAIOAK, ETA OBRAK ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA
- ANTOLAMENDUA, GIZA BALIABIDEAK ETA KALITATEA
- ARRETA SOZIALA, LANA ETA LAN ANTOLAMENDUA

2. TXANDA

- KULTURA-ONDAREA, PRENTSA ETA PUBLIZITATEA
- INDUSTRIA ETA ENERGIA
- ESTADISTIKA, INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK
- HEZKUNTZA ETA ZIENTZIA
- JURIDIKOA
- EUSKARA
- INGURUMENA

Fase bi dituzte:

1. fasea. Merezimendu orokorren balorazioa.

Hona hemen fase honetan baloratuko diren merezimenduak: esperientzia profesionala, tituluak, hobekuntza-ikastaroak, irakaskuntzan eta ikerketan lan egindakoa, euskara, gradua, antzintasuna eta hizkuntzak. Gehienez ere, 238 puntu lor daitezke; fasea gainditzeko, berriz, 25 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

Merezimenduak bi irizpideren arabera baloratuko dira: lanpostuarekiko lotura eta baliozkotasun formala. Oinarri orokorren 5.2 oinarrian deskribatzen dira zer irizpide erabiliko diren merezimendu bakoitzaren baliozkotasun formala baloratzeko.

II. Fasea. Merezimendu espezifikoaren balorazioa

Fase honetan, merezimendu espezifikoak baloratuko dira, lanpostu bakoitzaren jakintza eta trebetasun garrantzitsuenen arabera; idatzizko proba praktikoko baten bidez ebaluatuko dira.

Proba praktikoa bi motatakoa izan daiteke: kasu praktikoa bat ebatzea edo proiektu bat egitea. Oinarri orokorretan deskribatzen dira zer alderdi garatu behar diren horietako bakoitzean; oinarri espezifikoetan, berriz, zer proba-mota egin behar den iragarritako deialdi bakoitzean.



Lehiaketa hauen berrikuntzak

- Langileen erregistroan dauden betekizunak eta merezimenduak alegatutzat joko dira beti, eta ofizioz baloratuko dira.
- Parte hartzen den lehiaketa bakoitzean eskatutako dotazioak lehentasunen arabera ordenatzeko betebeharra dago. Azken fasean egingo da hori, eskabide espezifiko bat aurkeztuta.
- Lehiaketa espezifikoak bi unetan iragarriko dira; hala ere, denak batera ebatziko dira: lehiaketa orokorra ebatzen den egun berean, hain zuzen ere.
- Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren Jarraibidea, Langileen Erregistroa arautzen duena: hor arautzen dira merezimenduen egiaztagiriek gutxienez zer eduki behar dituzten inskribatzeko, eta, ondorioz, lehiaketa hauetan baloratuak izateko.

Lehiaketa orokorra:

Lehiaketa orokorrak fase bakarra dauka, eta horko merezimenduak lehiaketa espezifikoan I. fasean bezala baloratuko dira.

Lehiaketa espezifikoan bigarren txandarako eskabideen kudeaketa amaitu ondoren egingo da lehiaketa orokorrerako deia.

Lehiaketa honetan, A edo B taldeetara irekita dauden lanpostuen dotazio guztiak iragarriko dira: titularrik gabekoak, argitaratzeko unean daudenak eta III-A berariazko osagaririk beherakoak.

Lehiaketak ebatzea

Lehiaketa espezifikoak eta orokorra aldi berean amaituko dira. Dotazioak esleitu baino lehen, lehiaketa bat baino gehiagotan parte hartzen duten langileek ordenatu egin beharko dituzte lehiaketa guztietan eskatutako plazak. Honela, dotazio bat baino ezingo zaio esleitu parte-hartzaile bakoitzari.

- [Behin-behinean atxikitakoak](#)

Honako hauek nahitaez parte hartu beharko dute lehiaketa honetan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostu batean behin-behineko atxikipena duten funtzionarioek.
- Osakidetzako erakunde publikora pasatu diren lanpostuetan behin-behineko atxikipena duten langileek.

Lehiaketa ebatzita, behin-behineko atxikipenaz dauden langileak, baldin eta lehiaketan beste lanposturik lortzen ez badute eta dauden lanpostuetatik mugiarazten badira, beste lanpostu bati atxikiko zaizkio berriz. Lehenbizi, lehiaketan parte hartu bai baina destinatorik lortu ez duten funtzionarioak atxikiko dira, eta, gero, lehiaketan parte hartu ez dutenak.



- [Dagokion titulazioa izanez gero, aurkez naiteke nire kidegokoak ez diren lanpostuetara?](#)

Ez.

Salbuespen hori zerbitzu-eginkizunen esparruan baino ezin da egin, halaxe jasota baitago indarrean dagoen lan-baldintzen akordioan.

- [Nola egiaztatzen dira betekizun espezifikoak?](#)

Mota bat baino gehiago dago betekizun espezifikoetan:

- Ziurtagiri, titulu edo baimen baten jabe izatea; hori egiaztatzeko, kopia konpultsatu bat erabili beharko da, eskumena duen erakunde ziurtatzaileak egina, betiere, Langileen Erregistroan jasota ez badago.
- Jakintza batzuk izatea: proba baten bidez egiaztatu daitezke.
- Esperientzia izatea, ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten lanpostuetan. Datu horiek langileen erregistroan jasota daude, eta ofizioz txertatuko dira.

- [Nola baloratuko dira merezimendu orokorrak?](#)

Lan-esperientzia

Hamar (10) urte baloratuko dira, gehienez ere.

Balorazio hori egiteko, lanpostuen indarreko monografia hartuko da erreferentziatzat. Eta, lanposturen bat amortizatuta baldin badago, lanpostuari buruz dauden datuak aztertuz baloratuko da. Langileak beste administrazio publiko batzuetako lanpostuak bete izan baditu, lanpostuaren monografiaren arabera baloratuko da, eta, monografiarik ez baldin badago, egindako lana ziurtatzeko agirian ageri diren funtzioen eta atazen arabera.

Oinarri orokorretan zehazten dira balorazio-irizpideak.

Tituluak

Ikasketa-titulu ofizialak baloratuko dira, bai eta izen handiko erakundeek eta unibertsitateek emandako tituluak ere.

Ikasketa-titulu ofizialak baloratuko dira, non eta ez diren horiek eskatu langilea dagoen kidegora iristeko.

Gerta daiteke lanpostu berbera eskatzea titulu-maila ezberdinetako kidego edo eskaltetako hainbat lehiatzailek. Halakoetan, beheko taldeko langileei ezingo zaizkie merezimendu modura baloratu goiko mailako kidegora edo taldera iristeko eskatzen diren titulu ofizialak.

Merezimendu modura aurkezturiko goragoko beste titulu bat lortzeko behar diren tituluak ere ez dira baloratuko.



Hobekuntza ikastaroak

Baloratu egingo dira lortu nahi den lanpostuaren berezko atazekin edo lan hori egiteko behar diren trebeziekin zerikusia duten gaietan hobetzeko ikastaroak, baldin eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, unibertsitateek eta/edo beste administrazio publiko batzuek antolatuta edo homologatuta badaude edo izen handiko erakundeek emandakoak badira (prestakuntza-gaietan, giza baliabideen garapenean, lanbide-kualifikazioan edo ikerketa-arloan izen handikoak diren erakundeak).

10 urte baino lehenago egindako ikastaroak: 150 ordukoak edo gehiagokoak direnak baino ez dira baloratuko.

Euskara

Euskara baloratu ahal izateko, eskaturiko lanpostuak ezin du eduki derrigortasun-data iraungirik lanpostu-zerrendan.

Gradua eta Antzintasuna

Antzintasunari dagokionez, karrerako funtzionario bilakatu baino lehenago betetako zerbitzuak ere baloratuko dira, betiere, hala aitortuta badaude. Lehenago alegatu diren zerbitzuekin batera egindako beste batzuk ez dira kontuan hartuko.

Abiaburu duen kidegoan langileak finkatuta duen gradu pertsonala baloratuko da, eskuratu nahi duen lanpostuaren destino-osagarriaren mailari dagokionez.

- [Zer alegatu behar dut?](#)

Langileen Erregistroan jaso gabeko merezimendu guztiak alegatu beharko dira. Eskaera Intranet-en bitartez egiten baduzu, Langileen Erregistroan zutaz zer datu dauden jakinaraziko zaizu.

Dena dela, esteka horretatik kontsultatu dezakezu Langileen Erregistroa.

- [Zer egiaztatu behar dut?](#)

Langileen Erregistroan jasota ez dauden merezimendu guztiak egiaztatu beharko dira, agiri bidez. Eskaera Intranet-en bitartez egiten baduzu, Langileen Erregistroan zutaz zer datu dauden jakinaraziko zaizu.

Eskabidea paperean egiten baduzu, langilearen atariaren bitartez jakin daiteke zer datu dauden erregistro horretan, datu pertsonalak atalean sartuta; lehenago, ordea, XL-Neten identifikatu behar da.

- [Nola egiaztatu merezimendu berriak?](#)

Merezimenduak Funtzio Publikoko zuzendariaren 2015eko irailaren 4ko Jarraibidearen arabera egiaztatu behar dira.

Halaber, Jakinako Erregistroaren atalean fitxa batzuk aurkituko dituzu: bete egin beharko dituzu, eta entregatu, aurkeztu beharreko gainerako egiaztagiriekin batera.



Merezimenduak ziurtatzeko dokumentuen kopia konpultsatuen bidez egiaztatu behar da. Dokumentua zein funtzionario edo aginteri aurkeztu zaion, horri dagokio konpultsa egitea, betiere, dokumentua jasotzeko gaitasuna badu.

Ondoren, merezimendu bakoitzerako informazio funtsezkoa zehazten da, beharrezkoa dena Erregistroarako Jarraibidearen arabera erregistratu ahal izateko; oinarri orokorren arabera baloratzekoak diren eremuak ere zehazten dira.

Lan-esperientzia

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean egindako lana ofizioz sartuko da.

- Egiaztatu egin beharko da, ordea, beste administrazio publiko batzuetan egindako lana; beste administrazio horietan langileen arloan eskudun diren organoek ziurtatu beharko dute. (Oinarri espezifikoen III. eranskina)

Titulu ofizialak (graduondokoak ez)

Atal honetan, titulazio akademiko ofizialak baino ez dira erregistratuko, hau da, ikasketa-plan ofizial batean daudenak eta erregimen juridiko zehatza dutenak, zeinaren arabera titularrari gaitasuna ematen zaion Estatu osoan eskubide jakin batzuk onartzen dituzten jarduera batzuk garatzeko, kasuan kasuko ikasketa-eremuaren arabera.

Hona hemen atal honetan inskribatzeko gutxienez eskatzen den edukia:

- Titulua
- Emate-data
- Erakundea

Graduondokoak

Atal honetan inskribatuko dira unibertsitateko graduondoko titulu ofizialak, masterrak eta doktoregoak; baita ere, unibertsitate-tituluak eta izen handiko erakundeek emandako tituluak, bai eta atzerrian egindakoak ere, baldin eta gutxienez 450 ordukoak badira edo kreditu baliokideak badituzte. Ordu-kreditu horretara iritsi ezean, prestakuntza-ikastaro gisa inskribatuko da titulua.

Inskribatzeko, datu hauek jaso beharko dira, gutxienez:

- Tituluaren izena
- Hasierako eta amaierako data
- Erakunde ziurtatzailea.
- Iraupena

Trebakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak.

IVAPek antolatutako ikastaroak ofizioz erregistratuko dira. Gainerako ikastaroak egiaztatzeko, ikastaroak antolatu edo iragarri dituen organo edo erakundeak egindako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Honako hauek nahitaez jaso beharrekoak izango dira:



- Izenburua
- Hasiera eta amaiera datak
- Iraupena
- Erakunde ziurtatzailea

Balorazio Batzordeak, merezimendu hau baloratzeko, irakaskuntza-erakundea eta ebaluazioa ere hartuko ditu kontuan.

Irakaskuntza-jarduera

Irakaskuntza-jarduera: noiz behinkako jarduera bat da, ikaskuntza-programa bat antolatzea eta ematea dakarrena. Irakaskuntza-jarduerak izan daitezke irakaskuntza teorikokoak, trebeziak entrenatzekoak, tutoretzakoak, ikuskapenekoak edo mistoak.

Ziurtatuta dauden ikastaroak inskribatuko dira, noiz eman ziren kontuan hartu gabe. Ikastaroak eman izana egiaztatzeko, horiek antolatu edo iragarri dituen organo edo erakundeak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiria alde bietatik fotokopiatu eta konpultsatu beharko da, eta honako hauek izan beharko ditu:

- Izenburua
- Hasiera eta amaiera datak
- Iraupena
- Erakunde ziurtatzailea

Batzordeak datu hauek ere hartuko ditu kontuan:

- Irakaskuntza-erakundea
- Segidako edizioak

Era berean, irakaskuntza-jarduerari balorazio handiagoa ematea nahi bada, erabili den material didaktikoaren kopia eranstea gomendatzen da.

Komunikazioak

Komunikazioa: gai edo produktu jakin baten aurkezpena, diziplina edo jakintza-arlo jakin bateko profesionalen arteko ezagutzak trukatzeko bilera batean.

Txostenak, komunikazioak edo posterrak egiaztatzeko, horien kopia konpultsatua aurkeztu beharko da, bai eta antolatzaileen edo deialdia egin duen organoaren edo erakundearen ziurtagiria ere; interesatuak komunikazioa aurkeztu duela, eta horretaz gain, hori egin duenetako bat dela adierazi beharko da. Ziurtagiriak, beraz, honako hauek jaso beharko ditu:

- Egilea
- Izenburua
- Biltzarraren edo topaketaren izena
- Hasierako eta amaierako data

Batzordeak datu hauek ere hartuko ditu kontuan balorazioan:

- Ekitaldi mota
- Aurkezpen mota
- Hedapen-eremua
- Egilea



Argitalpenak.

Argitalpena: idatzitako produktu zehatz bat editatzea, izan artikulu bat, kapitulu bat edo liburu bat. Oro har, bada argitalpena definitzen duen irizpide bat: hirugarren baten gutxieneko aitortpena; argitaratzaile batek jartzen dituen iragazkiak edo betekizunak izan daitezke.

Atal honetan, honako hauek aurkeztu behar dira egiaztatzeko: argitaratutako jatorrizko testua (behar bezala konpultsatua), ziurtagiria, bibliografia-erreferentzia edo interneten argitaratuko dokumentua (URLa aipatuta); Hona hemen zer jaso behar duen:

- Egilea
- Izenburua
- Data
- Testu osoa edo bibliografia-aipamena
- Zein erakundek editatu duen

Argitalpenak egiaztatzeko, jatorrizko testua edo ziurtagiria aurkeztu beharko da. Balorazio Batzordeak datu hauek hartuko ditu kontuan:

- Argitalpen-mota
- Hedapen-eremua
- Edukiaren ezaugarriak
- Argitaletxearen garrantzia
- Egilea

Ikerketa-proiektuak

Ikerketa: zeregin batzuk egitea, proiektu normalizatu baten barruan, komunitate zientifikoak mota horretako planetarako zehazten dituen arau eta irizpideekin bat etorritik.

Ikerketa-proiektuetako parte-hartzea ziurtagirien bidez egiaztatu behar da. Hona hemen zer jaso behar den:

- Ikertzailea
- Ikertzailearen zereginak
- Aurrekontua
- Hasiera eta amaiera data
- Proiektuaren deskribapena
- Finantziazio-erakundea

Balorazio Batzordeak datu hauek hartuko ditu kontuan:

- Egilea
- Finantza-erakundea
- Zenbatekoa
- Proiektuaren eragina

Era berean, proiektuaren ondoriozko ekarpenek eta argitalpenek azken balorazioa hobetu ahal izango dute.



Euskara

Euskarako ziurtagiriak eta tituluak, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan daudenak, ofizioz sartuko dira.

Erregistro horretan, zenbait erakundek edo sailek (IVAPek; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak; Osasun Sailak eta Kultura Sailak) kudeatzen dituzten tituluen eta ziurtagirien erregistroetako informazioa jasotzen da, azaroaren 9ko 297/2010 DEKRETUAN ezarritakoarekin bat etorriz (297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzen dituen eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen duena).

Baldin eta euskara jakiteari buruzko beste ziurtagiriren bat baduzu (dekretu honetan jasotzen ez dena) eta Langileen Erregistroan ageri ez bada, jar zaitez harremanetan Funtzio Publikoko Zuzendaritzarekin.

Hizkuntzak

Dekretu honetan ezarritako titulu eta ziurtagiriak baino ez dira inskribatuko: 117/2015 Dekretua, ekainaren 30ekoa, hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien baliokidetasuna ezartzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako.

Atal honetakoa egiaztatzeko, jatorrizko titulua aurkeztu beharko da, fotokopiatuta eta konpultsatuta.

Kontuan hartu hizkuntzak jakitea merezimendu legez baloratuko dela lehiaketan, nahiz eta betekizuna ere izan daitekeen lanpostu batzuetarako.

Gradu pertsonala

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko gradua ofizioz sartuko da.

Antzinasun-plusa

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko antzinasuna ofizioz sartuko da.

Beste administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuen balorazioa, Langileen Erregistroan jasota ez badago, administrazio horietan langileen arloan eskudun diren organoek ziurtatu beharko dute. Ziurtagiri hori egiteko, Oinarri Orokorren III. Eranskinean jasota datorren eredu erabil daiteke, bai eta horko datu guztiak dakartzan beste edozein eredu ere.

- [Zer esan nahi du lehiaketan atzera egiteak?](#)

Lehiaketan parte hartzeari uko egitea; hori esan nahi du lehiaketan atzera egiteak.

Lehiaketako lanpostuen behin-behineko esleipenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen denean bukatuko da lehiaketari uko egiteko epea.



- Aurkez naiteke lehiaketa bat baino gehiagotan iragarritako lanpostuetara?

Bai.

Lehiaketa batean parte hartzeko, iragarritako lanpostuetan eskatutako betekizunak bete behar dira. Lehiaketa bat baino gehiagotan parte har daiteke, eta lanpostu bat baino gehiago eska daitezke lehiaketa berean.

- Zer gertatzen da lehenengo banago bi deialdiri dagozkion bi lanpostu esleitzeko?

Oinarri orokorretan bada betebeharrak bat: parte hartzen den lehiaketa guztietan eskatutako dotazioak ordenatu egin behar dira, lehentasunen arabera; azken fasean egingo da hori, eskabide espezifiko bat aurkeztuta.